

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko irailak 18 · 1408 zenbakia

BIZITZA ZALDI GAINEAN

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARA

PAUSO BATERA

 **UDAL
EUSKALTEGIAK**
Udal Euskaltegiak Euzko Legebiltzarrak

 **HADE**
Hazteko Ardurak

 **EIBAR**
Udal Euskaltegiak

**EIBARKO UDAL
EUSKALTEGIA**

Portalea eraikina, Bista Eder
kalea 10, 2. solairua
Telefonoa: 943 700912
Whatsapp: 688 698566
euskaltegia@eibar.eus

MATRIKULAZIO EPEA:
IRAILAREN 1ETIK
IRAILAREN 25ERA

Informazio
gehiago:



BANATZAILEAK BEHAR DIRA

..eta kitto!
aldizkaria
Eibarren
banatzeko

- Ostiraletan
- Urte osoko kontratua



Interesa baduzu,
jarri gurekin harremanetan:
• 943 20 09 18
• banaketa@etakitto.eus

Jarrai iezaguzu!



Portaleak 30 urte bete ditu. Eibartar gutxi egongo da bertatik pasatu ez denik, baina zenbat dakigu bere inguruan? Ba al dakigu zer zegoen eraikin horretan Portalea sortu baino lehen? Eta zein animalia dagoen bere fatxadan? Herritarrei galdera-jolasa egin dugu aste honetan eta gure sare sozialetan duzue ikusgai.

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



www.etakitto.eus



eta kitto!
euskara elkarteak



2024
KOORDINATZAILE BAKARRI
DIFUSIOA



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Jagobe Mandiola

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



...eta kitto!-ri buruzko inkesta

...eta kitto! Euskara Elkartearen inguruko inkesta egingo dugu datozen asteotan. Horretarako, zuetako hainbatek telefono deiak jasoko dituzue inkesta egiteko eta zintzo erantzutea eskertuko genizueke.

Zuen erantzunak oso lagungarriak izango zaizkigu gure jarduna hobetzeko eta elkartek dituen helburuak lortzeko bidean.

Eskerrik asko!

...eta kitto! Euskara Elkartea

Hortik esanak



Denoi tokatzen zaigu diskurtso arrazistei aurre egitea. 'Lo que no te cuentan de Donosti' taldeak, adibidez, badirudi ez duela gure atzetik ibiltzea ez den beste egitekorik. Haien diskurtsoa oso sinplea da eta nazkatuta gaude "eraman hauek zuen etxera" entzuteaz. Eta badirudi pertsona migratzaileak soilik onartuko ditugula "lanera baldin badatoz", edo KAS existitzen dela "delinkuenteei jaten emateko". Egoera oso konplexu baten aurrean, diskurtso arrazistak azalekoak dira, sinpletasun hutsekoak, eta, zori-txarrez, lekua aurkitzen dute.

Ez Donostian soilik: munduan zabaltzen ari diren hitzak dira hauek, eta beldurtzen du etor daitekeenak. Orain dela ez hainbeste denbora, behintzat, lotsa ematen zuen arrazista edo eskuindarra zinela esateak; orain, aldiz, ez dute lotsarik, eta ematen du modan dagoela.

Kristina Fernandez, Kaleko Afari Solidarioak (KAS) elkarteko kidea

Gasteizko Udalak orain arte jarrera pasiboa zuela esango genuke: jende hori hor zegoen, eta, arazorik sortzen ez zuten bitartean, 'hor konpon' pentsatzen zuen. Orain, berriaz, ikusten dugu ez dutela jarrera pasiboa, baizik aktiboa, baina kontrako norabidean. Eta Donostian ere antzeko egoerak ikusi ditugu. Beldur gara Euskal Herrian, tantaka bada ere, ez ote den elkartasuna eskaintzen dutenei oztopoak jartzeko joera bat zabaltzen ari. Beldur gara ez ote den zabaltzen ari migranteekiko elkartasuna kriminalizatzeke joera bat.

Asier Etxenike, Salburuko auzo elkarteko kidea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PRUEBIA EGIN. → Ahalegindu, saiatu. "Posturia irabazitta jaukagu. Pruebia egitte alde ointxe jan jittuat etxian hamalau txuleta-ta"

PROBADERO. → Armak egin ondoren, ondo dauden ikusteko tokia. Gaztelerazko 'banco de pruebas'. "Probaderua antxiñakua zan Eibarren".

1968

Asola Berri
elkartearen
inaugurazioa

Urte horretan, irailaren 30ean inauguratu zuten Asola Berri elkartea, eta argazkia ere egun horretan egindakoa da. Elkarte honen bereizgarririk nabarmenena bere bolatokia da. Bertan aritzen dira hiru txirloan, baita gaur egun ere.

PLAZAOLA



Farmaziak

- BARIXAKUA 18**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 19**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 20**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
- ASTELEHENA 21**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
- MARTITZENA 22**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 23**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- EGUENA 24**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- BARIXAKUA 25**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Valentina Saceda de Marcos.** 89 urte. 2026-09-09.
- **Asier Mayora Arakistain.** 48 urte. 2026-09-10.
- **Angel Badiola Uriarte.** 85 urte. 2026-09-11.
- **Maite Alberdi Areitioaurtena.** 90 urte. 2026-09-12.
- **Ana M^a Estenaga Elkoro.** 79 urte. 2026-09-13.
- **Pilar Basauri Aizpurua.** 93 urte. 2026-09-14.
- **Oscar Perez Bidegain.** 63 urte. 2026-09-14.
- **Jesus Idigoras Treviño.** 64 urte. 2026-09-15.



Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleek klaseetarako erabiliko duten gelan egin zuten aurkezpena. Ikasten elkartearen bulegoa ere Torrekuian dago, beheko solairuan.

Ikasten elkarteak Torrekuian ekingo dio ikasturte berriari

Aste honetan aurkeztu dute Ikasten elkartearen bulego berria, Torrekuian egindako prentsaurrekoan. Horrekin batera, Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleek 2026/27 ikasturtean klaseetarako erabiliko duten gela erakutsi dute.

SILBIA HERNANDEZ

Jon Iraola alkateak, Sonia Archeli Gizartekintzako zinegotziak, Mertxe Arriola Ikasten elkartearen presidentak eta Eva Perez de Albeniz Debabarreneko Esperientzia Eskolako koordinatzaileak aurkeztu dituzte Torrekuako eraikinean dauden instalazioak.

Mertxe Arriolak eskerrak eman dizkie alkateari eta Eibarko Udalari, "Ikasten elkartearen eskaintzen dioten babesarengatik, baita lokala lagatzeagatik ere. Guretzat oso garrantzitsua da Ikasten elkartearen bulegoa eta Esperientzia Eskola toki berean egotea, horrek hobeto lan egitea ahalbidetuko digulako".

Ikasten elkarteak askotariko jarduerak antolatzen ditu: hitzaldiak, mendi ibilaldiak, luzaketak, puntua eta joskintza, Kaleetan Kantuz, an-



tzerkia, Berriketan Ikasi eztabaidataldia, Marea Gora hitzaldi zikloa, Agurtzen informazio-zerbitzua, Elikagaien Bankuaren janari-bilketarako laguntza... Saio guztiak irekiak eta dohainik izaten dira, nahi duten guztientzat.

Horrekin batera, Ikasten-ek Debabarreneko Esperientzia Eskola ere antolatzen du.

Debabarreneko Esperientzia Eskola

Horrekin batera, Ikasten-ek Debabarreneko Esperientzia Eskola ere antolatzen du. Adierazi dutenez, ikasturte berriari ilusioz ekingo diote: "Orain dela urte asko abiatu zen proiektua izan arren, oraindik ere interes handia pizten du. Parte hartzen dutenen aldetik oso harrera ona izaten du beti".

Kurtso honetan abiatuko da 22. edizioa. Ekimena 55 urtetik gora-ko pertsonei zuzendua dago eta, ikasturtean zehar, ikasleek hainbat gai eta jakintza-arlo landuko dituzte: psikologia eta garapen pertsonala, osasuna eta jarduerak fisikoa, literatura, historia eta artea, musika, filosofia, elikadura, zuzenbidea, sexualitatea, komunikazioa, kulturartekotasuna eta gizarte-parte-hartzea, besteak beste. Prestakuntza ikasgelatik kanpoko jarduerekin osatuko da, eta klaseetan formazioa eta parte-hartzea uztartuko dituzte.

Ikasturtearen hasiera-ekitaldia urriaren 16an izango da, 11:30ean, Armeria Eskolan. Klaseak, berriz, urriaren 23an hasiko dira, eta astean hiru egunetan, martitzen, eguazten eta egunetan emango dituzte, goizez.

Matrikula egiteko epea zabalik dago, urriaren 15era arte, eta Pegora herritarren arretarako bulegoan egin daiteke. Informazio gehiagorako, 695 788 936 telefono zenbakira deitu daiteke.



Urriaren 16ra arte aurkeztu daitezke Gure Balioak 2026 Sarietarako hautagaitzak

S.H. Debegesa Debarreneneko Garapen Agentziak Gure Balioak 2026 Sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu du. Urriaren 16ra arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak, eta aurtun ere hiru kategoriatan sarituko dituzte: Bizitza osoko ibilbidea, Gazte ekimena eta Gizarte ekimena. Debarreneneko pertsona eta proiektuen konpromisoa eta gizarte-balioak aitortzea da sari

helburua. Debegesak sustatu eta antolatzen ditu, Laboral Kutxaren babesarekin.

Proposamenak aurkezteko, Debegesaren webgunean (www.debegesa.eus) sari bakoitzari dagokion formularioa bete behar da. Zalantza edo arazoak argitzeko, Debegesarekin harremanetan jar daiteke, komunikazioa@debegesa.eus helbidean edo 943 820 110 telefonora deituta.

1951ean jaiotakoen bazkarira joateko izen-ematea zabalik dago

S.H. Urriaren 24an elkartuko dira 1951ko kintoak, "gure 75 urteak ospatzeko". Untzagan bilduko dira, 13:00ean, taldearen argazkia egin eta zapiak banatzeko. Ondoren, luntxa izango dute, Ongi Etorri tabernan, eta handik Arkupera joango dira, bazkaltzera. Parte hartu nahi duenak 90 euro sartu beharko ditu Kutxabank-eko kontu honetan (izen-abizenak argi azalduta): ES69 2095 5035 01 912775 0001. Izena emateko azken eguna urriaren 16a izango da.

Elikadura-sektoreari zuzendutako bonuen kanpaina berria martxan

S.H. Eibarko Udalak eta Eibarko Dendarien Elkarteak (EDE) bonuen kanpaina berria abiatu dute. Martitzenean (irailak 15) hasi ziren dira bonuak saltzen, www.erosieibarren.eus webgunearen bitartez. Edizio honetan, bonu bakoitzak 50 euroko balioa izango du eta 40 euroren truke erosi ahal izango dira, horrela 10 euro aurreztuz. Bonuak Eibarko Dendarien elkarteko establezimenduetan erabili ahal izango dira 2026ko urriaren 9ra arte.



Industria-eremuan enplegua sustatzeko programa berria abiatu dute

S.H. Udaleko Enplegu eta Talentu Sailak, Armeria Eskola Elkartearekin batera, industria-eremuan enplegua sustatzeko programa berria jarri du abian. Prestakuntza mekatronika industrialean eta mekanizazioan oinarrituko da, eta ekimenak Eibarko 15 langabetu edo lan prekarioa dutenen laneratzeko gaitasuna hobetzea du helburu.

Parte hartu ahal izateko, interesdunek Eibarren erroldatuta

egon behar dute, langabezian edo lan prekarioarekin, eta Lanbiden izena emanda. Gainera, ezinbestekoa da gaztelaniazko ahozko eta idatzizko ulermen-maila egokia izatea. Izena emateko epea irailaren 21etik urriaren 2ra bitartean egongo da zabalik. Aurrez aurre eman ahalko da izena, Pegoran, edo modu elektronikoa, udalaren www.eibar.eus web orriaren bidez. Informazio gehiagorako deitu 633909388 telefonora (Malen).

Kofradixa egun biribila Arraten

Kofradixa eta Baserritar Jubilatuen eguna ospatu zen domekan Arraten eta, urtero bezala, egun osorako egitaraua antolatu zuen Eibarko Udalak. Simon Aldazabal XXXI. Antxixiketaldiarekin hasi zen eguna. Eguerdian, berriz, Meza Nagusia eta prozesioa ospatu ziren eta, ondoren, Arrateko Jaietako paella lehiaketa hasi zen, zelaian. Eguerdian hasi ziren, baita ere, kadete eta jubenil mailetako pilota partiduak, frontoian. Eta arratsaldean, berriz, idi gazteen erakustaldia hartu zuen Arrateko probalekuak.

ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA



ARGAZKI BILDUMA IKUSTEKO:
WWW.ETAKITTO.EUS





Arrate izenekoen jaiak 30 urte beteko ditu domekan

S.H. Hogeita hamar urte pasatu dira, Arrate izeneko emakume batzuen ekimenez, jaia antolatzen hasi zirenetik. Urtero ospatzen den topaketa Arrateko jaiak amaitu eta jarraian, Kofradixa egunaren ondorengo domekan ospatzen dute, eta hala egingo dute asteburu honetan ere.

Lehen ediziotik gaur arte hutsik egin ez duen Arrate Valenciagak azaldu digunez, domekarako ez dute aparteko ezer prestatu: “Urteroko plana egingo dugu. Batzuk oinez igoko gara, Ama Birjina-

ren pausoetatik, eta beste batzuk autobusez edo automobileren joango dira. Han elkartuko gara, 12:30ean ospatuko den mezan. Lore-ekaintza egin, buelta bat eman, zerbait hartu eta bazkaltera joango gara”.

Hasierako urteetan jaiak oihartzun handia izan zuen, eta Eibartik kanpo bizi diren 'Arrate' asko animatu ziren parte hartzera, baina gaur egun elkartzen direnak Eibar eta ingurukoak izaten dira.

Jaiaren lehen edizioan, ostera, Arrate izeneko emakumeak

elkartzeko ideiatik haratago, bazegoen beste helburu bat: Azitainetik gora, Arrateraino doan Ama Birjinaren Pausoen bidea berreskuratzea. Antzinako gurutze-bide edo santutxu horiek itxita zeuden, eta bide zaharra landarez eta oztopoz beteta zegoen. Hori dela eta, Arrate izeneko emakumeen talde batek Udalari eskatu zion pausoak eta bidea berreraikitzeke. Debemen elkartearekin batera egindako proiektu bati esker, 1997an pausoak berriro zabaltzea lortu zen. Pausoen arteko bide zaharra hobetzeaz gain, Arrateko Amaren Pausoetan Jose Antonio Azpilikueta, Esther Galarza eta Jule Egaña artistek egindako lanak jarri zituzten.

415 zenbakiari egokitu zaio Arrateko jaietan zozketatu duten saria

S.H. Jaixak Herrixak Herrixandako jai-batzordekoek Arrateko jaietan saldutako rifen zozketa egin dute, eta 415 izan da zenbaki irabazlea. Saridunak urriaren 2ra arteko epea dauka JHH-rekin kontaktuan ipintzeko. Ordurako inor agertuko ez balitz, ordezko

zenbakiak (1178) jasoko luke saria. Zozketaren antolatzaileekin kontaktuan ipintzeko, mezua idatzi daiteke jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera edo, bestela, Instagram bitartez (@jaixakherrixak) mezu zuzena bidaltzeko aukera ere badago.






BROKEN BROTHERS BRASS BAND



PSYCHOCLOWN



PSYCHOCLOWN



PSYCHOCLOWN

AGORRA



BROKEN BROTHERS BRASS BAND



URBATEN TXOSNA



GOXUA'N SALSA

**Eguraldia
lagun,
kultur eta
musika
eskaintza
zabala izan
zen herrian.**



POTATO



POTATO



ERRALDOI ETA GAITEROAK



ERRALDOIAK



GOXUA'N SALSA



BURRUNBA ELEKTROTCHARANGA



USTEKABE TXARANGA



BURRUNBA ELEKTROTCHARANGA



USTEKABE TXARANGA

AGORRA



LARUNBATEKO GIROA



USTEKABE TXARANGA



EH SUKARRA

**Jendetza
batu zuen
zapatuan
Ustekaberen
Agorra Fest
jaialdiak**



EUSKORLEANS



EH SUKARRA



LAKET ERROMERIA



LAKET ERROMERIA




EUSKORLEANS

ARGAZKIAK:
Aitor Barrutia eta
Alayn Moya (Ustekabe)

IÑAKI AGIRRE ZINEMALDIA, ELGOIBARREN

Iñaki Agirre Zinemaldiak lau film eramango ditu Elgoibarko Herriko Antzokira irailaren 17tik 28ra. Ongarri Zineklubak eta Udalak antolatutako zikloan Palestine 36, Familia de alquiler, Un poeta eta Yo no moriré de amor emango dituzte, Donostia Zinemaldiarekin bat eginez.



KONTZERTU GAUA MENDAROKO GAZTETXEAN

Aurten Gararock jaialdirik izango ez denez, Mendaroko Gazte Asanbladak kontzertu gaua antolatu du barixakurako Gaztetxean. Ateri, Ezta Ilen eta Grapa taldeek joko dute bertan. Ateak 20:30ean irekiko dituzte eta zuzenekoak 21:30ean hasiko dira. Sarrera doakoa izango da.



GAZTE TOPAGUNE SOZIALISTAREN AURKEZPENAK ESKUALDEAN

Gazte Topagune Sozialista aurkezteko hainbat hitzordu egingo dituzte Debabarrenean: irailaren 18an, Ermuan (18:00, Eskilarapeko) eta Deban (18:30, Gaztetxea); irailaren 25ean, Soraluzen (18:00, Gaztetxea) eta Elgoibarren (19:00, Gaztetxea); eta urriaren 2an, Eibarren (18:00, Kultu). Topagunearen seigarren edizioa urriaren 9tik 12ra egingo dute Elizondon, GKS eta IASEk antolatuta.





“Eskualdeko garraioak” saileko lehen bi ataletan, Debabarrenean garraio publikoan mugitzea nola den aztertuko dugu. Lehenengoan: gurutza daiteke Debabarrena trenet? Kotxea beharrezkoa da?

Bigarrenean, berriz: eta trena heltzen ez den herrietan, zer? Autobus bidezko aukerei eta herrien arteko konexioei begiratuko diegu.

ALBISTEAK

AP-8an trafikoa desbideratuko dute asteburuan Mendaro eta Elgoibar artea.



Zabalik da Debegesaren gure Balioak 2026 Sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea.



Irailak 18

BERTSO	BERTSO SAIOA	19:00	KALTXANGO EUS-KALTEGIA (ERMUA)
ANTZER.	“SUSTRAI” ZIRKUSS TALDEA	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
ERAKUS.	PORTALEA, 30. URTEURRENA	18:30	PORTALEA (EIBAR)
MUSIKA	XABIER BADIOLA ETA GAILU	19:00	ARKUPEAK, AITA AGIRRE (ELGOIBAR)
JAIK.	MESEDEETAKO JAIK	11:00	ERREKALDE AUZOAZ (SORALUZE)
KIROL.	ESKUZ BINAKAKO TORNEOA	19:00	FRONTOIA (MENDARO)
MUSIKA	ATERI, EZTA ILEN ETA GRAPA	21:30	GAZTETXEA (MENDARO)

Irailak 19

TRAIL	V. HIRU TXIKIAK TRAIL	08:00	SAN PELAIO (ERMUA)
JAIA	ENPANADAREN JAIA	11:00	ORBE PLAZA (ERMUA)
AZOKA	BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA	10:00	UNTZAGA (EIBAR)
MUSIKA	OSYNTH EGUNA: ALTERNATIVE DIVISION	18:00	MAALAKO PARKEA (ELGOIBAR)
ERAKUS.	AUTO KLASIKOEN RALLIA ETA ERAKUSTALDIA	13:30	(DEBA)
MENDIA.	MALLABIKO MENDÍZALEAK: ARIETZU	09:00	ELIZALDE PLAZA (MALLABIA)

Irailak 20

JAIA	BIZIKLETAREN FESTA	10:30	SAN PELAIO PLAZA (ERMUA)
MENDI	ELORRIAGA-ITZIAR-DEBA	08:30	FORUEN PLAZA (DEBA)
IRTEERA	DEBATIK ZUMAIARA ITSASONTZIZ	12:30	ANES ARRINDA (DEBA)
KIROL	BAKARKAKO FRONTENIS LIGA (FINALA)	09:30	ESKOLAKO FRONTOIA (MALLABIA)

IZENGABEAK II LEHIAKETA EGINGO DA GAUR ETA BIHAR EIBARREN

**DEBABARRENEKO ZAZPI
TALDE IGOKO DIRA UNTZAGA
PLAZAKO OHOLTZARA, ETA
LAU SARI BANATUKO DITUZTE:
2.000 ETA 1.000 EUROKO BI
SARI NAGUSI ETA 500 EUROKO
BI SARI BEREZI. GAINERA, SARI
NAGUSIA IRABAZTEN DUTENEK
50 ESTUDIOKO ORDU LORTUKO
DITUZTE.**

Eibarko Udalak eta Eibarko Musikari Gazteen Elkartek (AMJE) antolatuta, Izengabeak II Debabarreneko musika-taldeen lehiaketa egingo da, gaur eta bihar, Untzagan. Lehiaketaren helburua Debabarreneko musika-taldeen lana ezagutaraztea eta zuzeneko musika sustatzea da.



Aurreko edizioako talde parte-hartzaile bat




Aurreko edizioako irabazleak sariak jasotzen

Eskualdeko zazpi talde igoko dira oholtzara bi egunetan: gaur, barixakua, hiru taldek joko dute 20:00etatik aurrera, eta bihar, zapatua, beste lau talderen txanda izango da, 19:00etatik aurrera.

Lehiaketaren bigarren edizioan lau sari banatuko dituzte. Lehenengo sailkatuak 2.000 euro eta Leharreko estudioan grabatzeko 50 ordu jasoko ditu; bigarrenak, berriz, 1.000 euro eta 50 ordu. Horrez gain, 500 euroko bi sari berezi emango dituzte: bata Eibarko talde onenari, eta bestea euskarazko kantu onenari. Irabazleak bihar jakinaraziko dituzte, lehiaketaren amaieran.

PARTE-HARTZAILEAK

D34D0P3R4 (DEADOPERA)



David Karbaren proiektu musikala da D34D0P3R4, oraindik garapen-prozesuan dagoena. Aurretik, 2017tik 2024ra bitartean, bost EP kaleratu zituen Kvalvika proiektuarekin, elektronika, ambient eta synthpop estiloak landuta.

Oraingoan, ordea, beste bide bat jorratzen du Karbak: sampleak eta off-eko ahotsak erabiltzen ditu, zinema eta spoken word-a oinarri dituen proposamen musikala osatzeko.

UDAZ AND THE HOLLOW NIGHTS



Eibarko bost musikari gaztek osatzen dute Udaz and The Hollow Nights taldea, 17 urte ingurukoak. Taldearen proposamenean abesti propioak eta bertsioak uztartzen dituzte, indiearen sentsibiltatea eta egungo pop-rocka nahastuz.

Udazken Salaberria, Udazizenez ezaguna, da taldearen burua eta interpretatzen dituzten abesti propioen konpositorea. Berarekin batera, Ibai Pérez, Luken Carrasco, Enrique Lili eta Xabier Lili aritzen dira taldean.

Musikari gisa hazten jarraitzea eta Eibarko musika-eszenan lekua egitea dute helburu, zuzenekoetan nortasun propioa eta energia erakutsiz.

MISE EN ABYME



Mise en Abyme Eibarko rock/metal progresiboko talde instrumental da, 2018an Ander Cenitagoyak, Aitor Suarezek eta Jon Zubiaurrek sortua. Urte hartan hiru demo grabatu zituzten, eta Bilboko Villa de Bilbao talde berrien lehiaketako finalerdietara iritsi ziren. Sasoi berean, beste bi abesti ere sortu zituzten, gero 'Emergence' taldearen lehen lana osatuko zutenak.

2019ko uztailean kaleratu zuten EP hori, autoekoiztua eta urte bereko hasieran grabatu eta nahastutakoa. Urte amaieran, Jon Zubiaurrek taldea utzi zuen arrazoi pertsonalengatik, eta, hilabete batzuk kide berri baten bila aritu ostean, Andoni Sodupe gitarra-jolea batu zitzaion 2020an.

Gaur egun, hurrengo diskoa prestatzen ari dira. 2024an lehen singlea grabatu, eta 2025eko maiatzean argitaratu zuten; orain, lan berria osatuko duten gainerako abestiak prestatzen ari dira.

MILICIA FOLK



Milicia Folk Eibarren kokatutako folk musikako bikotea da, Benja Martín gitarra-jole eta abeslariak eta Gorka Bocos kontrabaxu-jole eta abeslariak osatua. Taldearen soinuaren eragin handia du Ameriketako Apatxeetako musikak, eta, bereziki, Maybelle Carterrek garatutako Carter Style gitarra-teknikak.

Bluegrass tradizionala eta garaikidea, Old Time-a, countrya eta 1950eko hamarkadako rock and rolla uztartzen dituzte. 2025ean hasi ziren elkarrekin jotzen, hasieran YouTuberako bideo batzuk grabatzeko asmoz, eta soinu akustiko eta anplifikatu gabekoaren aldeko apustua egin dute.

METAL GUDARIAK


Metal Gudariak 14 eta 19 urte arteko sei musikaririk osatutako taldea da, metalaren eta rockaren aldeko zaletasuna partekatzen duten gazteek sortua. Orain dela bi urte inguru hasi ziren elkarrekin jotzen, Eibarraren ahaztuta geratzen ari diren musika-generoak, bereziki metala eta rocka, berriz ere indartzeko asmoz.

Taldea hiru gitarra-jolek, bateria-jole batek, baxu-jole batek eta abeslari batek osatzen dute: Noah Tagle, Paul Carrasco, German González, Jon Altuna, Luken Carrasco eta Aitor Sánchez.

RYTHMACHIN


Rythmachin 2024an Eibarren sortutako sei musikaririk osatutako taldea da, funk-a oinarri hartuta hainbat estilo uztartzen dituen proiektu musikala. Reggaearekin, swingarekin eta beste hainbat generorekin esperimentatzen dute, soinu propioa osatzeko.

Taldea Maitane Da Silvak (ahotsa), Oier Gurrutxagak (gitarra), Alex Martinezek (saxoa eta zeharkako flauta), Ekhi Vegasek (baxua), Gorka Jauregik (perkusioa) eta Ekaitz Vegasek (bateria) osatzen dute. Eibarko, Elgoibarko, Bilboko eta Bartzelonako kideak batzen dira taldean.

JUDASH


Judash Eibar eta Elgoibarko heavy, thrash eta metal taldea Markel Iraolak, Hodei Otegik, Joseba Goñik eta Ekaitz Vegasek sortu zuten, hasieran Judas Argarate izenarekin. 2024an izena aldatu eta Legarrekoko estudioetan grabatu zuten lehen diskoa, Walter Tuzzeorekin. Nahasketa, berriz, Mutrikuko AME estudioan egin zuten, Axular Arizmendirekin.

EGITARUA
BARIXAKUA 18
(20:00ETATIK AURRERA)

D34D0P3R4 (DEADOPERA)

UDAZ AND THE HOLLOW NIGHTS

MISE EN ABYME

ZAPATUA 19
(19:00ETATIK AURRERA)

MILICIA FOLK

METAL-GUDARIAK

RYTHMACHIN

ARGAZKIAK:
 Eibarko Udala



Barixakuak Jolasian ekimena auzoetara itzuliko da

Ettxeko txikienei barixaku arratsaldetan ordubeteko aisialdia euskaraz eskaintzen dien “Barixakuak Jolasian” egitasmoa auzoko herrietara itzuliko da irailaren 25ean. Bisitatuko duen lehenengo auzoa Txaltxa Zelai izango da. Bertan izango dira ...eta kitto! Euskara Elkar-teko teknikari bat eta hainbat begirale, umeei arratsaldepea dibertigarria eskaintzeko asmoa-ekin. 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak eskainiko dira, euskaraz eta doan, 17:00etatik 18:00etara. Urriko hurrengo barixakuetan Tor-rekuako parkean (urriak 2) eta Urkizukoan (urriak 9) egingo dira jolasak.

"Sardina Freskue" ikuskizunarekin hasiko du ikasturtea Berbetanek

Ikasturtea behin hasita, laster ja-rriko dira martxan ‘Berbetan’, ‘Gurasoak Berbetan’ eta ‘Ongie-torri’ programak. Horretarako, eta urteroko ohiturari jarraituz, ikas-turte hasierako jaialdia antolatuko du ...eta kitto!-k datorren astean. Irailaren 22an, martitzena, Eidabe konpainiaren “Sardina Freskue” ikuskizun dibertigarria ikusteko aukera izango da, Untzagan, har-mailen aldean, 17:30etik aurrera.

Euria egingo balu ikuskizuna Errebal Plazian egingo litzateke.

Bien bitartean, ...eta kitto!-k antolatzen dituen programe-tan izena eman nahi izanez gero, epea irekita dago. ‘Berbe-tan’-ek euskara praktikatzeko aukera eskaintzen du, astean behin ordubetez, giro lasai eta informalean eta talde txikietan. ‘Gurasoak Berbetan’ familia-giroa euskalduntzeko egitas-moa da; aukera dago hor ere mintzapraktika egiteko, baina horrez gain familian egiteko moduko ekintza asko antolatzen dira urtean zehar. Azkenik, ‘Ongietorri’ harrera eta elkarbi-zitzarako programa da, euskaraz jakin ez baina euskarara eta euskal kulturara hurbildu nahi duten hoientzako pentsatua. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: 943200918 / elkarte@etakitto.eus.



BARIXAKUAK JOLASIAN, BUELTAN DA!



IRAILAK 25 Txaltxa Zelai
URRIAK 2 Torrekua
URRIAK 9 Urkizu

17:00-18:00



**Umeentzat
jolasak,
doan!**



eta kitto!
euskaraz elkarrekin

BERBETAN



Etorkizuneko mugikortasuna jasangarria izateko nahia



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Mugikortasunaren Europako Astea dela eta, Eibarko Udalak hainbat ekimen antolatu ditu irailaren 19tik 22ra bitartean "Pertsona guztientzako mugikortasuna" lemapean. Bihar, hilak 19, Bigarren Eskuko Bizikleten Azoka, konponketa tailerra eta haurrentzako ginkana egingo dira Untzagan. Astea amaitzeko, irailaren 22an Udalbusa doan izango da eta Mugikortasun Jasangarriaren Plan berria kontrastatzeko saioa egingo da Errebalen.

Eibarko Udalak bat egin du berriro ere Mugikortasunaren Europa-ko Astearekin, ingurumenari zein osasun publikoari lotutako garraio-ohitura jasangarriak bultzatzeko helburuarekin. Aurtengo kanpainak "Pertsona guztientzako mugikortasuna" goiburua du, adin, gaitasun zein egoera sozioekonomiko desberdineko herritar guztiei bideratutako garraio-sistema integratzailea bultzatuz.

Eguaztenean, irailaren 16an, 'Jarri prest zure bizikleta MUGIrekin' ekimena egin zen Untzagan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Garraioaren Lurralde Agintaritzak bultzatuta. Bertan, doako furgoneta-tailerrak oinarritzko konponketak eskaini zizkien MUGI txartela aurkeztu zutenei, eta MUGI kargak zein bizikletak zozketatu ziren. Gainera, garraio publikoaren abantailak gazteenei hurbiltzeko 'Misterioa Topo Express-ean' escape room berritzailea jarri zen martxan. Azahara Domínguez foru diputatuak garraio publikoaren gizarte-justizian jarri zuen arreta, eta Jon Iraola alkateak bi erakundeen arteko elkarlana zein herritarren autonomia nabarmendu zituen.

Ekitaldi nagusiek bihar, irailak 19, izango dute jarraipena Untzagan. Goizean, 10:00etatik 14:00etara, 2018az geroztik urtero arrakasta handiz egiten den Bigarren Eskuko Bizikleten Azoka ospatuko da. Azokan bizikletak zein mugikortasunarekin lotutako objektuak (kaskoak, patineteak...) erosteko eta saltzeko aukera egongo da, aurrez www.merkabi.eus/eibar webgunean edo 943 67 02 49 telefonoan doan izena emanda. Materiala 8:00etatik 10:00etara deposituan utzi ahal izango da eta gehienez hiru objektu onartuko dira pertsonako, 700 euroko prezioan gehien jota. Halaber, Eibar Klub Deportiboak bizikletak konpontzeko tailerra eskainiko

du goizez, eta arratsaldean (17:00-19:30) 5 eta 12 urte arteko haurrentzako bide-hezkuntzako zirkuitua eta ginkana antolatuko ditu.

Mugikortasun Astea amaitzeko, irailaren 22an 'Autorik Gabeko Eguna' egingo da Eibarren, eta Udalbus zerbitzua doan izango da garraio publikoaren erabilera pizteko. Egun berean, 18:30ean, Errebal eraikineko A gelan, herritarren parte-hartze tailerra egingo da Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plan (HMJP) berriaren azken proposamenak aurkeztu eta kontrastatzeko.

Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana

Prozesu honen bidez, Udalak 2015eko plana eguneratu nahi du hiriaren egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko, oinezkoen eremuak eta efizientzia energetikoa lehenetsiz. Plan berria osatzeko parte-hartze zabala bideratu da: etxeetan zein digitalki 562 galdetegi jaso dira, industrialdeko 12 enpresek parte hartu dute eta saio irekiak egin dira.

Datuen arabera, eibartarren %68,72 oinez mugitzen da herri barruan, %13,39 garraio publikoan, %9,84 kotxez eta %1,64 bizikletaz. Udalerritik irtetean, ordea, ibilgailu pribatua (%43,09) eta garraio publikoa (%38,71) dira nagusi. Ondorioz, herritarren %55,35ak oinezko mugikortasuna lehenestea eskatzen du, espaloiak zabaltzea eta igogailu zein eskailera mekanikoen funtzionamendua bermatzea proposatuz. Etxetik kanporako garraio publikoan maiztasunak igotzea, ordutegiak sinkronizatzea eta geltoki berria eraikitzea eskatzen da.

Diagnosiak herriko gabezia nagusiak zehaztu ditu. Oinezkoen atalean espaloie estuak, baldosa hautsiak eta igogailuen eta eskailera mekanikoen akatsak salatu dira, eta espaloiak zabaltzea zein igogailu berriak instalatzea eskatzen da. Garraio publikoan Udalbusaren maiztasun urria, tren-autobusen koordinazio falta eta hiriburuekiko lineen saturazioa dira arazo nagusiak; konponbide gisa maiztasunak igotzea, ordutegiak sinkronizatzea, txartel bakarra ezartzea eta autobus geltoki berria eraikitzea eskatzen da.

Bizikletari dagokionez, bidegorri sare integratuagoa eskatzen da, eta autoen kasuan aparkaleku falta bideratzeko El Corte Inglés-eko plazak edo eremu disuasorioak erabiltzea aipatu da. Industrialdeetan langile gehienak kotxez doaz eta 12 enpresetatik 3k soilik dute Garraio



Bizikletak konpontzeko tailerra, bigarren eskuko bizikleten azoka, autorik gabeko eguna... Hainbat ekintza egingo dira Mugikortasunaren Astean



Eguaztenean 'Jarri prest zure bizikleta MUGIrekin' izeneko ekimena egin zuten Untzagan.

“Zaldia ez da makina bat, izaki biziduna da, sentitu egiten du eta ulertu egin behar zaio”

JAGOBE MANDIOLA • Zaldikoa



Txikitan, zaldiekin amesten zuen eta, gaur egun, keinu txikiekin oso lotura estua lortzen du eurekin. Jagobe Mandiolak ia bizi guztia pasa du zaldi gainean eta bere pasioak Munduko Txapelketan parte hartzeraren eraman du, onenen artean lehiatuz. Lehia, oster, bigarren edo hirugarren plano batean geratzen da berarentzat, zaldi gainean gozatzea delako bere nahirik handiena.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Jagobek eta Teo zaldiak tandem bikaina osatzen dute. Elkarren arteko ulermena betebetea da eta argi erakutsi zuten Viladecansen (Katalunia) jokatu zen TERC (Lehiaketako Zaldi-ibilbideen Teknikak) modalitateko Munduko Txapelketan. 23. postuan amaitu zuten senior kategorian, baina, emaitzaz haratago, bizitako esperientzia da buruan iltzatuta geratu zaiena.

Nola bizi izan zenuen Munduko Txapelketako esperientzia?

Orain dela gutxira arte burutik ere ez zitzaidan pasatzen horrelako esperientziarik biziko nuenik. Ondo pasatzeko asmoz hartzen dut parte lehiaketetan. Ez dut inongo lehiakortasunik sentitzen, plazer hutsez egiten dut. Noski, beti daukat ondo egiteko helburua, baina xede nagusia ondo pasatzea eta gozatzea izaten da. Orain arteko lehiaketetan, bat irabazi nuen, Gopegin (Araba), eta besteetan 6-8. postu inguruan ibili izan naiz. Hortik Munduko Txapelketan parte hartzera... ezta planteatu ere! Beraz, bertan parte hartzea saria izan da niretzat.

Nola iritsi zitzaizun bertan parte hartzeko aukera?


Iaz, Gopegiko lehiaketa irabazi nuenez, Europako Txapelketan parte hartzeko beharrezkoak ziren pun-

tuak lortu nituen. Txapelketa Erroman (Italia) egin zen, irailaren hasieran, eta hainbat arrazoiengatik ezin izan nintzen joan. Aurten, Munduko Txapelketa Katalunian jokatu behar zen eta, plaza batzuk libre geratu zirenez, lehiaketetan nahiko erregular ibili garenoi parte hartzeko aukera eman ziguten.

Modu berezian prestatu zinen txapelketarako?

Bai. Normalean, nire planetan lehiarik eduki gabe ere, nahiko modu erregularrean joaten naiz zaldiarengana. Astean 4-5 aldiz. Uztailaren hasieran jaso nuen Munduko Txapelketan parte hartzeko deia eta entrenamenduak antolatu nituen, ondo prestatzeko. Egun batzuetan orientazioa landu nuen, beste batzuetan oztopoak, eta beste batzuetan taldekoekin geratzen nintzen elkarrekin entrenatzeko. Dena dela, oporrak ere hartu nituen eta kanpora joan nintzen, baina lagun batek hartu zuen zaldiarekin entrenatzen jarraitzeko ardura. Oso proba fisikoak izaten dira, erresistentzia behar da, eta berebizikoa da zaldiak sasoi onari eustea. **TREC izeneko modalitatean lehiatzen zara, baina zer da hain zuzen ere?**

TREC-ek *Técnicas de Rutas Ecuestres en Competición* (Lehiaketako Zaldi-ibilbideen Teknikak) esan nahi du. Mendi-ibilbideetan eta bertan aurkitu ditzakegun oztopoetan oinarritzen da. Hiru proba egiten





“Ondo pasatzeko asmoz hartzen dut parte lehiaketetan. Ez dut inongo lehiakortasunik sentitzen, plazer hutsez egiten dut”

“Zaldiek abiadura eta erresistentzia eduki behar dute, eta presioari ondo eutsi behar diote”

dira. Lehenik, Orientazio eta Erregularitate proba dago (P.O.R. gazteleraz). Bertan, mapa bat ematen digute eta denbora jakin batean mapa kopianu behar izaten dugu, koordenadak atera, eta abar. Horrekin mendira irteten gara, bakoitza bere aldetik, iparorratzarekin eta maparekin. Gainera, abiadura jakin bat zehazten digute eta abiadura horri eutsi behar diogu. Hau da, bizkorregi ala motelegi egiten baduzu, penalizazioa jasotzen duzu. Horretarako, eskalimetroarekin norabide bakoitzean egin behar dugun distantzia goaz neurtzen eta, zaldiarekin egiten dugun distantzia zenbatekoa den jakiteko, metro jakin batzuetan gure zaldia zenbat pauso egiten dituen jakin behar dugu aurretik.

Ze zaila!

Gauza asko eduki behar dira kontuan. Gainera, ordu asko izaten dira. Txapelketan zortzi ordu behar izan genituen proba egiteko. Bestalde, bidean kontrol-puntuak egoten dira eta handik pasa behar izaten gara (ezkutatuta dauden bi bandera artetik, adibidez), eta balizak ere jartzen dituzte bidean, gainean daramagun txartelean bertatik pasa garela eta zein denboratan markatzeko. Puntu bakoitzean abiadura aldatu egiten digute. Esan beharra dago horren guztiaren aurretik, batzuetan bitartean eta baita amaieran ere, albaitari kontrolak egoten direla zaldia eagoera onean daudela

egiaztatzeko. Ondo ez daudela ikusten badute, deshidratatuta daudela, kolpe bat dutela, errenka dabiltzala edo dena delakoa, kanporatu egiten zaituzte.

Bigarren proba zein izaten da?

P.A.R. (*Prueba de Maestría en los Aires* gazteleraz). Horretarako, zelai batean edo hondarrezko pista batean, 150 metroko luzerako eta 2 metroko zabalerako ibilbide bat markatu (izan daiteke zuzena, kurban...) eta zaldiaren abiaduraren kontrola neurtzen dute. Hasteko, galopa (guretzat korrika egitea dena) ahalik eta motelen egin behar du zaldia, eta ondoren, paso izeneko mugimendua (motelena izango litzatekeena) ahalik eta azkarren.

Eta zein da azken proba?

P.T.V. izeneko (Askotariko Lurretan Egindako Proba edo *Prueba en Terreno Variado*). Bertan, kilometro eta erdiko ibilbidean (pistan, basoan, zelaian...) aurkitzen diren oztopoak gainditu behar dira (enborrak, zuhaixkak, atea...). Hor zaldiaren kontrola eta abilezia hartzen dira kontutan. Izan ere, saltoak egiten zaldia berotu egiten dira, baina bat-batean ate batekin egiten dute topo, mendian bezala, eta lasaitu egin behar dira zabaltzeko. Zentzu horretan, ibilbideen diseinatzaileek zaldia muturrera eramatea bilatzen dute, nola kontrolatzen duzun ikusteko. Horretarako, ondo doitzen den zaldia behar duzu.



Viladecansen jokatu zen TREC modalitateko Munduko Txapelketan aritu ziren irailaren hasieran Jagobe eta Teo. JAGOBE MANDIOLA

Zaldiek nolako ezaugarriak izan behar dituzte TREC-en parte hartzeko?

Abiadura eta erresistentzia eduki behar dute aldi berean, eta presioari ondo eutsi behar diote. Izan ere, berez, naturan, zaldia beste batzuen harrapakin izaten dira eta ihes egiteko joera izaten dute edozein gauza arraroren edo zailtasunen aurrean. Eta, azkenik, zaldikoarekin harreman estua eta konfiantza osoa izan behar dute.

Nola sortzen da harreman hori?

Zaldi honekin, Teorekin, arazoak eduki ditut. Urduria da berez. Nahasketa duen zaldia da: Batetik, hipodromoetako odolgarbi ingelesa da. Hauek oso zaldi urduriak izaten dira, beroak, zoroen fama dute... Eta beste alde batetik, bretoia ere bada. Karroak eramateko zaldia izaten dira hauek, lasaigoak eta oso indartsuak. Teok ez zuen urduritasuna ondo kudeatzen. Leihoe kin beldurtzen zen, oso urduri jartzen zen, antsietatea zuen... Eta nik ez nekien hori nola kudeatu. Modu batera eta bestera saiatu nintzen, baina ez nuen lortzen. Orduan, gauza horietaz arduratzen den gizon batengana joan nintzen laguntza bila eta lan asko egiten hasi ginen zaldiarekin, baina ez zaldi gainean, lurretik egindako ariketekin baizik, komunikazioaren bitartez lotura hori lortzeko, elkar ulertzeko. Aste gutxitan demaseko aldaketa nabaritu

zen. Gure arteko komunikazioa ez da ahozkoa izaten eta gorputzarekin, keinuekin, komunikatzen naiz berarekin. Adibidez, pista biribilean solte lagatzen badut, altuera batean igotzen naiz, bi karraska agin eta berehala gerturaten da ni gainean jartzeko. Bestetik, berak ere sentimenduak ditu eta egunen batean urduri dagoela ikusten badut, edo nekatuta dagoela, gogorik gabe, agian belarra jatera besterik ez dut eramaten, kitto. Zaldia ulertu egin behar da. Toki askotan zaldi gainean ibiltzen besterik ez dizute erakusten, hipikak asko egiten du huts zentzu horretan, baina zorionez, gero eta toki gehiagotan ulertzen dira gauzak beste modu batean eta zaldia ulertzen saiatzen gara, hau da, ez makina bat izango balitz bezala erabiltzen. Zaldia izaki biziduna da, sentitu egiten du eta ulertu egin behar zaio. Berari segurtasuna ematen eta berak zuegan konfiantza edukitzen lortzen da harreman hori.

ELKARRIZKETA OSOA





Eltzartzako zubi zaharra, Azitainen. Bertan hasten da Arrateko Pausuen ibilbidea. EIBARKO UDALARTXIBOA

Arrateko Pausoen kondaira kontatzen du Mariasunek. Ama Birjinak atseden hartu zuen lekuetan eraikitakoak omen dira. Santutxuen kokalekuak zeintzuk diren eta nola apainduta dauden azaltzen du.

Arrateko pausoen ibilbideko santutxuen kondaira

Mari Asun Azpiri Mandiola
(1946)



Eibarko Aginaga auzoko Larrañeta baserrian jaio zen 1946an. Arrate bailarako Mendigoitxi baserriko Bizente Aretarekin ezkondu zen eta bertara joan zen bizitzera. Landare-izen ugari dakizki eta horiek jasotzeko egin zitzaion elkarritzeta.

Mari Asun Azpiriri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(...) Porque azaldu jakon, ipintzen dau zelaikoari, edo Arimendikoari edo, pastore batzueri Ama Birjiña (...). Eta gero, gabaz, Azittaiñen egin nahi eben elizia, eta Ama Birjiñak esan eutsen elizia egiteko han goixan. Eta gero egitten eben behixekin eta harrixak gora, beheerakuak gora ta. Hasi ziran zaintzen, eta esan eutsen: 'Aida Txolio ta' (zelan ipintzen dau?), ba hantxe behixen izena, ba hor begira daguana geldituko dala tuerto eta cojo. Eta halantxe pasau bihar jakon. Eta haregaittik egin zittuen Ama Birjiñak deskantsuak egitten zittuen lekuan horrek santutxuok. Hiru pausotan jua zala ta, hiru pauso (...)



BEÑAT LASKURAIN

Konpromisoaz

Jendea falta da. Berdin da ze talde, elkarte, koru edo dena delako eragileri buruz ari garen, guztietan lelo berbera dabil aspaldian. Trukean dirurik jaso ezean, kosta egiten zaigu mugitzea.

Egunerokotasunaren zamari egotzi ohi diogu errua; ikasketak, lana, etxeko lanak eta abar bukatutakoan... astirik eta indarrik ez. Errutinaren itolarria mugatzaile garrantzitsua den arren, ezin esan zama hori berria denik; lehenago ere egunerokotasunak bazuen bere karga, eta hala ere duela hamarkada batzuk harri azpitik ere ateratzen zen euskara elkartean, koruan, kultur elkartean, ikastolarako dirua lortzeko txosnan, kirol elkartean edo auzoko jai-batzordean orduak doan emateko prest zegoenik. Beste garai batzuk ziren ziur aski, ilusio garaiak; dena egiteke zegoen, eta Hegoaldeak izan duen erakundetze mailak ere hainbat jarduera profesionalizatzea ekarri du.

Baina egungo jende-eskasia errutinaren zamari eta borondatezko lanaren profesionalizazioari bakarrik leporatuta, arazoaren muinari ezikusiarena egiten gabiltzalakoan nago: balio komunitarioen ahultze-prozesu bat bizi dugu, sare sozialetan biziki nabarmena dena. Norbanakoaren eta gizartearen arteko arrakala zabaltzen duten mezuak dituzte ahotan gazteoi algoritmoak parez-pare jartzen dizkigun hainbat eduki sortzailek, gizartearen arako mesfidantza sortzen dutenak eta norbanakoaren interesa beste ezereen gainetik jarri behar dela sinestarazi nahi digutenak.

Ez gaitezen engaina; gizakia izaki soziala da. Komunitatean baino ezin dugu segurtatu gure biziraupena, ongizatea eta zoriona. Komunitatea eskubide eta betebeharrak sortzen dituen harreman-multzo bezala, babes-nukleo sendo bezala, elkartasun-ariketa bezala. Gizartean bizi garelako ditugu eskura elikagaiak denok nekazari izan gabe; sendatu gaitezke, denok mediku izan gabe; eta argindarra pizten dugu, nola funtzionatzen duen ulertu gabe. Baina joko hau ez dabil denok ez bagara konprometitzen.

Egia da mundu mailako albisteek nagikeria ematen duela, eta etsipenak gizartearekiko pasotismora eramane gaitzakeela. Baina ez pasotismoak, ez indibidualismoak, ez eta erosokeriak ere ez dute azkenaldian noraezean dabilen mundu hau onbideratuko. Gizartearen timoia hartzeko garaia da, arduraz jokatzekoa, norbera bere gizarte-kausekin konprometitzekoa. Izan kultur arloan, hizkuntzan, gizarte arloan, politikan, jaien antolakuntzan edo dena delakoan. Gizarte honek konpromisoa eskatzen du.

“Ez pasotismoak, ez indibidualismoak, ez eta erosokeriak ere ez dute azkenaldian noraezean dabilen mundu hau onbideratuko”

Pilota jaialdiak berri- iritsiko dira Astelenara

E.B. Eibarko Klub Deportiboko Pilota Batzordeak zazpi norgehiagoka prestatu ditu gaurko eta biharko Astelena frontoian.

Gaurko jaialdia 18:15ean hasiko da, eta guztira bost partida jokatuko dira.

Gipuzkoako eskuz binakako lau norgehiagoketan, Saez-Agote Hernaniko bikotearen aurka arituko dira, Amillategi-Gil Tolosako en kontra, Varona-Del Rey Azkoitia-koekin eta Ibarra-Agirresarobe Zaldibiakoen aurka. Horrez gain, Gipuzkoako paleta goma binakako partida ere izango da, eta Sorria-Guinea Elgoibarko bikotearen aurka ibiliko dira.

Bihar, goizeko 10:30ean hasiko da jaialdia, eta senior mailako bi partida jokatuko dira eskuz binakako. Alde batetik, Narvaiza-Conde Erretereriakoen aurka eta, bestetik, Segurola-Gisasola Oñatikoen kontra.

Mikel Mujika nagusi Simon Aldazabal lasterketan

E.B. Simon Aldazabal Arratera Igoera Orbetik lasterketaren 31. edizioa jokatu zen domekan. 33 lagunek hartu zuten parte, giro eguzkitsua eta beroarekin.

Lehia bizia izan zen eta Mikel Mujika izan ze azkarrena, 25'59" denborarekin. 26. segundora iritsi zen Pello Osoro (26'25") eta minutu bat gehiago behar izan zuen Txomin anaiak (27'39").

Lehen emakumea Aitziber Urkiola izan zen, 10. postuan sailkatu zena 32'50" denborarekin. Ane Ziaran izan zen bigarrena (19. postuan, 36'07") eta hirugarrena Maider Zenarruzabeitia (21. postuan, 37'17").



Ugaitz Gartzia junior mailako Euskadiko txapeldun Zumaian jokatutako triatlloan

E.B. JAZ Eibar Triatloi Taldeak fin jarraitzen du podiumak lortzen. Joan den larunbatean Zumaia-ko XIX. Triatloia jokatu zen, 450 parte-hartzaile ingururekin, eta proba Euskadiko Txapelketarako ere baliagarria izan zen. Hori ondo baliatu zuen Eibarko taldeko Ugaitz Gartzia, JNM kategoriako garaipena eskuratuz eta Euskadiko txapela jantziz.


Gartzia 19. postuan iritsi zen helmugara, 1:01:08ko denborarekin. Atzetik, Jokin Amorrosta taldekideak 32. postua lortu zuen, 1:02:10eko denborarekin, eta zazpigarrena izan zen SUB23M kategorian.

Gainerako gizonen artean, Aitor Fernandezek 1:09:28ko denbora egin zuen, 99. postu absolutuan eta V1M kategorian 22. postuan amaituz. Roberto Gartzia, berriz, 1:10:05ean gelditu zuen kronoa eta 15. postua lortu zuen V2M kategorian. Iñigo Marquezek 1:12:53ko denborarekin amaitu zuen proba, 103. postuan eta V2M kategorian. Javier Muñozek 1:15:54ko denbora egin zuen, nahiz eta txirrindularitza-segmentuan matxura izan eta

konpondu behar izan zuen.

Emakumezkoetan, Kristina Ruizek beste podium bat eskuratu zuen JAZ Eibar Triatloi Taldearentzat. 1:15:25eko denborarekin, hirugarren postua lortu zuen bere kategorian eta 24. postua sailkapen absolutuan. Idoia Uruñelak, azkenik, 1:27:09ko denborarekin amaitu zuen, 64. postuan sailkapen absolutuan eta 21. postuan ABF kategorian.

Zumaia-ko probak gainera, maila handiko parte-hartzaileak izan zuten, tartean Briana Mow eta Luke Willian triatleta olinpikoak.





Hiru Txikiak mendi-lasterketaren 5. edizioa jokatu da bihar, Ermuan

E.B. Lau ibilbide egiteko aukera emango dute azken urteotan ospe handia lortu duen Hiru Txikiak mendi-lasterketan. Proba nagusia 42 km-ko lasterketa izango da, 2.100 m-ko desnibel positiboarekin, eta bidean Urko, Oiz eta Egoarbitza igo beharko dituzte. Korrika edo oinez egin ahalko da.


Bigarren aukera 27 km-ko trail proba izango da. Bertan, parte-hartzaileek Urko igo beharko dute eta,

Oiz ingurura gerturatu ondoren, Aixolara iritsi eta handik Ermura joko dute. Ibilbide honen desnibel positiboa 1.500 m-koa izango da. Hirugarren aukera gazteei zuzenduta egongo da. Lasterketa hau Aixolako presan hasi eta Ermuan amaituko da. 12 km-ko proba izango da, 600 m-ko desnibel positiboarekin. Txiki-traila, bere aldetik, Ermuko irteeran hasiko da eta txikien inskripzioen arabera izango da.

Urbatek 25. urteurrena ospatu zuen zapatuan

E.B. Ospakizunerako asteburua izan da Urbat IKE-rentzat. Bere 25. urteurrena ospatzeko bazkaria egin zuen zapatuan, irailak 12, Errebalen, urte berak betetzen zituen Ustekabe txarangarekin batera. Eta txarangak Agorra Fest jaialdia antolatu zuenez, Urbatek txosna jarri zuen Untzagan.

Errebaleko bazkarian, Urbaten historian aritu diren jokalariek, entrenatzaile eta kide ohiak elkartu ziren, euren familiez gain. Horrela, asteburu gogoangarria pasa zuten.



Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua urrian jarriko dute berriz martxan

Zerbitzuaren helburua sedentaris-moa murriztea eta eibartarrei bizitza aktiboagoa eta osasungarriagoa izaten laguntzea da. Jarduera fisiko gutxien egiten duten kolektibo sedentarioei emango zaie arreta berezia, eta osasun-zentroek zerbitzura egiten dituzten deribazioek ere garrantzi berezia izango dute, bai ambulatortik bai Eibarko ospitaletik.

Orientazio zerbitzua doakoa izango da eta Astelena pilotalekuko bulegoan eskainiko da. 2026-2027

ikasturtean bi programa izango ditu zerbitzuak osagarri: Ibilixan, herri-tar guztiei zuzendutako ibilaldi osasungarriak, eta Mugigela, zerbitzura bideratutako pertsonen banakako erantzuna emateko programa.

Lehen hitzorduak urriaren 9an eta 23an, azaroaren 6an eta 20an eta abenduaren 4an eta 18an izango dira. Informazio gehiago nahi dutenek mogidu@eibarkirola.eus helbidera idatz dezakete edo 688 724 174 telefono zenbakira deitu.

SD Eibar-ek denboraldiko lehen derbia jokatu du

E.B. F Ligan jokatzeko duen SD Eibar-ek ezin izan zion bolada onari eutsi domekan, Ipuruan, Badalona Women taldearen aurka. Lehen partidaren irabazi eta bigarrenaren Real Madrilaren aurka etxetik kanpo berdindu ondoren, Iñaki Goikoe- txearen taldeak itxaropentsu ekin zion domekako lehiari, baina kataluniarrak 1-4 gailendu zitzaizkien.

Lehen zatia nahiko parekatua izan zen, aukera gutxiarekin, baina bigarrenaren Badalona min handia egin zion Eibarri. Urribek atsedenditit itzuli berri zabaldu zuen markagailua, eta 63. eta 67. minutuetan 0-3 jarri ziren aurretik kanpokoak. Nerea Sanchezek alde murriztu zuen, baina Paula Sanchezek 1-4 erabakigarria jarri zuen markagailuan.

Porrot horrekin, Eibar sailkapeneko 8. postuan dago, lau punturekin. Asteburuko honetan denboraldiko lehen derbia jokatu du domekan, 18:00etan, Athletic Club-en aurka, Ipuruan. Talde bikaitarrak oso ondo hasi du denboraldia eta oraindik ez du partidarik galdu. Hirugarren postuan dago zazpi punturekin.



Celta Fortuna jipoitu eta lehen postuetan egonkortu da SD Eibar

E.B. Partida atsegin eta gozagarria bizi izan zuen astelehenean SD Eibar-ek, Vigan. Celta Fortuna zuen arerio eta berehala jarri zitzaion alde neurketa, Jon Magunazelaiak 9. minutuan sarera bidalitako zartakoarekin. Jokalari eibartarra taldera itzuli zen Granadaren aurka zigorra bete ostean eta konfiantzarekin dagoela erakutsi zuen beste behin.

Magunazelaiaren golak berehala izan zuen jarraipena, 13. minutuan hain zuzen ere, azken partidetan nabarmen gora egin duen Adu Aren eskutik. Hegaleko jokalaria defentsaren laguntza izan zuen baloia sarreratzeko, baina eibartarra bezala, bera ere konfiantzaz beterik hasi da Jokin Aranberriren esanetara.

Eta eurek biek konfiantza badute, zer esan Jon Guruzetari buruz. Iaz golik ez zuen sartu eta azken bi jardunaldietan hiru daramatza.

Atzo bi sartu zituen defentsaren opariak aprobetxatuta eta arrisku handia sortu zuen aukera izan zuen bakoitzean.

Gauzak horrela, Eibar 0-4 jarri zen markagailuan 43. minutuan eta, ondoren, lasai hartu zuen partida. Celtak izan zuen baloia ia denbora osoan, baina Jon Mikel Magunagoitiak etxekoan erasoak ondo zapuztu zituen eta Eibarrek arriskua sortu zuen aurrera egiten zuen bakoitzean.

Garaipen horrekin, Eibarrek Hypermotion Ligako bigarren postuan jarraitzen du, 12 punturekin, Castellórengandik puntu bakarrera. Bihar, irailak 19, Lionel Messi erosi berri duen Eldense (oraindik ez da ofiziala) izango du arerio Eibarrek, Pepico Amat zelaian, 18:30ean. Alacanteko taldeak lehen garaipena lortu du jardunaldi honetan eta bost puntu ditu orain.



SD Eibar Fundazioaren sei jokalarik IFCPF-ko Munduko Txapelketa jokatu dute

E.B. Borja Pombo, Martín Ruiz, Víctor Varea, Daniel Ibarra, Yerik Martínez eta Sergio Rueda izango dira talde SD Eibar Fundazioaren ordezkariak Amerikako Estatu Batuetan jokatu duteko Munduko Txapelketan.

Txapelketa urriaren 14tik 25era jokatu da, eta hamabi herrialdek parte hartuko dute guztira, hiru multzotan banatuta. Espainiako selekzioa B multzoan arituko da,

Australia, Brasil eta Txilerekin batera.

Deialdia SD Eibar Fundazioak egiten duen lanaren aitortza ere bada. Klubeko taldeak erreferente izatea lortu du diziplina honetan, eta dagoeneko ligako hiru txapelketa irabazi ditu.

Ondo egindako lan guzti horrek azken urteotan izan duen garapenak Espainiako selekzioaren arreta ere erakarri du.

CD Urki-k porrotarekin hasi du denboraldia

E.B. Joan den larunbatean, irailak 12, hasi zuen denboraldia Ohorezko Erregional mailako CD Urki-k. Iaz 3. RFEF mailan aritu zen Zarautz KE izan zuen arerio, Asti zelaian, eta esku hutsik itzuli zen Eibarrera, 4-1 galdu ondoren.

David Elias Singletonek ireki zuen markagailua 18. minutuan, baina Aner Zubizarretak banakoa jarri zuen, 42. minutuan penaltia sartu ondoren. Urkik ondo eutsi zion berdinketari, baina 62. minutuan Julen Manterolak Zarautz berriz aurretik jarri zuen eta Iñigo Fernandez de Casaventek bigol sartu zituen lau minututan, 4-1 erabakigarria ezarritz.

Hurrengo jardunaldian, Urkik Hondarribia FE hartuko du Unboko beheko zelaian, bihar, irailak 19, 18:00etan.

Gorka Etxeberria garaile Arrateko Hiru Txirloan

E.B. Euri zaparraden mehatxupean, sasoz (eta lehor) amaitzea lortu zuten Arrateko Amaren 2026ko Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketan.

Guztira, 50 bolariren parte-hartzea izan zuen probak, eta aurtien sari guztiak eibartarrentzat izan dira.

Gaur egun Berrizen bizi den Gorka Etxebarria eibartarra izan zen garailea. Lehen hiru sailkatuek sei txirlo jo zituzten eta, beraz, berdinketa-haustean erabaki behar izan zuten txapelduna. Ibai Diez sailkatu zen bigarren eta Garikoitz Rodriguez hirugarren.

Lehen hiru postuetatik kanpo, Asola Berriko bolaririk onena Pablo Davila izan zen, lau txirlo jota.

Musika, janaria eta skatea izango dira protagonista Ipar Riders Skate Egunean



E.B. Ipar Riders Skate Eguna ospatu dute bihar, Sautxiko skateparkean. 11:00etan hasiko da skate eta roller arteko saioarekin, eta 13:00etatik 16:00etara skate librea eta barra izango dira. Gero, 14:00etatik 15:00etara tortilla lehiaketa egingo dute. Arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara, Open Juniors lehiaketa egingo da, eta 17:00etatik 19:00etara Open Helduena. 17:00etatik 22:00etara DJek Sautxi girotuko dute.



Eibarko euskara plan berria diseinatzeko lehen saio irekia

S.H. *Euskararen biharra* izenburupean, hiru gogoeta saio egingo dira, Eibarren Akebai plataformak antolatuta. Azaldu dutenez, “2026-2035 aldirako Euskararen Plan Estrategikoa prestatzen hasi behar dugu Eibarren, eta herritarren partaidetzarako lan-mahai horiek izango dira abiapuntua”.

Herritarren partaidetzarako lan-saioak izango dira, eta bakoitzaren iraupena ordu eta erdikoa izango da. Ahize-AEK-k dinamizatuko ditu saioak, eta aurretik izena eman daiteke (labur.eus/eibareuskaraz estekan).

Lehen saioa irailaren 22an, martitzenean egingo da, 18:00etan Markeskua jauregian. Aurreko planaren balorazioa oinarri hartuta, parte-hartzaileek elkar-jartze bat egingo dute. Beste bi saioak, bestetik, urriaren 6an eta 20an izango dira.



Eneritz Ibarra irabazi du lehen ‘Sormen Bizian’ beka

S.H. Eneritz Ibarra Azpeitia ilustratzaile eibartarrak irabazi du Orioko Udalak lehen aldiz antolatu duen *Sormen Bizian* beka: 7.000 euro jasoko ditu, *Benito, herriaren kantua* proiektua garatzeko. Ibarra Lerxundiren kantagintza eta iruditeria Oriorekin lotuko dituen ibilbide bat sortzea proposatu du.




Kantu saioak antolatzeko bilera egingo da astelehenean

S.H. Aurreko ikasturtean bezala, kurtso honetan ere euskal kantuak ikasteko aukera eskainiko dute Arrate Kultur Elkarteak eta, ikasturte honetan egingo diren kantu saio irekiak antolatzeko, bilera egingo da astelehenean (irailak 21), 19:00etan, Arrate Kultur Elkarteak. Arduradunek azaldu digutenez, “bilera horretan eguna, ordua eta kantutegia lotu nahi ditugu. Hamabostean behin egiten diren kantu saioak irekiak izaten dira, eta euskaraz abesteko gogoia duen edozeinek dauka parte hartzeko aukera. Asmoa ez da koro bat osatzea, lagunartean euskaraz abestuta jendeak ondo pasatzea baino”. Norbaitek saioetan parte hartzeko interesa badauka, baina ezin bada bilerara joan, Arrate Kultur Elkartearekin harremanetan jar daiteke (638 284 912 / arratekultu@gmail.com).



Bizikletaren arkitekturari buruzko hitzaldia

S.H. Eibarko Txirrindulari Elkartek hitzaldia antolatu du eguaztenerako (irailak 23), elkartearen sorreraren mendeurrena ospatzeko programazioaren baitan. Joseba Aranzabal arkitektu eibartarrak egingo du berba, *Bizikletaren arkitektura* izenburuari jarraituta. Saioa 19:00etan hasiko da, Portalean, eta sarrera libre izango da.



Gaur inauguratuko dute 'Portalea, 30 urte' erakusketa

S.H. Hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko, gaur arratsaldean, 19:00etan, zabalduko dute atzera begirako erakusketa Portalean. '30 urte' izeneko erakusketa prestatzeko, gonbidapena egin zaie hogeita hamar urte hauetan Portalean bakarka erakusketak egin dituzten artistei, eta hirurogei baino gehiagok beraien lanen bat erakutsiko dute. Urriaren 25era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

'Gogoetarako gunea' hitzaldi-zikloa

Erakusketa berezi horrekin batera, 30. urteurrenaren harira hitzaldi-sorta antolatu dute, 'Gogoetarako gunea' izenburupean. Lau hitzaldi izango dira, denak Portalean, 19:00etan.

Datorren astean, irailaren 24an (eguna) izango da lehena. Gironako Unibertsitateko irakasle-ohia eta Unesco Katedrako Kultura Politiken eta Lankidetzaren ohorezko zuzendaria den Alfons Martinell-ek egingo du berba, *Espacios culturales y Objetivos de Desarrollo Sostenible* izenburuari jarraituz.

Irailaren 28an (astelehena) Jesus Nuñez Villaverdek *Situación internacional, convivencia pacífica, espacios culturales* izenburukoa emango du. Nazioarteko Harremanetako irakaslea da Nuñez eta, horrez gain, bakearen eraikuntzan, nazioarteko segurtasunean eta indarkeriazko gatazken prebentzioan aditua ere bada.

Hirugarren saioa euskaraz izango da: *Kultura gu-neak, kontsentsu gu-neak* izenburuko saioa Jon Sarasua bertsolari eta Mondragon Unibertsitateko irakaslearen eskutik egingo da, urriaren 1ean (eguna).

Eta azken hitzaldia urriaren 5ean izango da. Amaia Gonzalez Llamas soziologo, ikertzaile eta aktibista feminista arituko da, *Espacios culturales, espacios de igualdad* izenburupean.



'John Williams kontzertuan' aurkeztuko du Musika Bandak

S.H. San Juan jaietan egin zuen eguraldiagatik ikus-kizuna bertan behera laga ondoren, Eibarko Musika Bandak bihar (zapatua, hilak 19) egingo du John Williams konpositoreari eskainitako kontzertua. Saioa 22:00etan hasiko da, Untzagan, eta pelikulen irudiek lagunduko diete musikarien doinuei.

Andoni Vazquez zuzendariaren berbetan, "oso kontzertu erakargarria izango da. Hainbat pelikuletako soinu bandak joko ditugu: *Superman, Indiana Jones, Jurassic Park, Schindler's List, Star Wars...*". Williams 54 aldiz izendatu izan dute Oscar sarietarako, azkena 2024an, eta horietako bost eskuratu ditu.

Amañari buruzko proiektzioa

S.H. Eibarko Nagusien Elkartek (ENE) ikus-entzuzko lan baten emanaldia antolatu du gaurko, bari-xakurako. Luis Lopezen *Amaña, iraganerako bidai*



Torrekuian aurkeztuko dute, 19:00etatik aurrera, eta sarrera librea izango da.

I. Ojanguren lehiaketara aurkezteko epea irailaren 24an itxiko da

S.H. XXXIX. Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea irailaren 25ean amaituko da. Eibarko Udalak eta Klub Deportiboak antolatutako lehiaketa Argizaiola eta CEFeko sailkapenetarako baliagarria izango da, eta guztira 3.820 euro banatuko dituzte saritan. Argazkietarako gaia librea izango da eta edonork dauka parte hartzeko aukera, gehienez sei argazki aurkeztuta (hiru zuri-beltzean eta beste hiru koloretan). Informazio gehiago: www.eibar.eus.

BH

EIBAS

EL MUNDO DE LA INGENIERIA EN LA ARQUITECTURA DE LA BOLSA

JOSEBA ARANZABAL

VINO

SEPTIEMBRE DE 2014 / 10 €

PORTALEA

...eta kitto! 2026 | 09 | 18

ZINEA COLISEO



“Cinco segundos”
DRAMA
2025/Italia/105’
Zuzendaria: Paolo Virzi
Aktoreak: Valerio Mastandrea,
Galatea Bellugi, Valeria Bruni
Landa-bizitza

1 ARETOA
• 19an: 19:45, 22:30
• 20an: 20:00
• 21an: 19:30



“Un plan perfecto”
KOMEDIA
2025/Espainia/93’
Zuzendaria: María Pulido
Aktoreak: Jordi Sánchez, Leo
Harlem, Raquel Guerrero
Lapurretak. Familia. Gabonak

1 ARETOA
• 19an: 17:00
• 20an: 17:00
ANTZOKIA
• 19an: 19:45, 22:30
• 20an: 20:00
• 21an: 19:30



“Prácticamente magia 2”
FANTASIAZKOA. ERROMANTZEA
2026/AEB/130’
Zuzendaria: Susanne Bier
Aktoreak: Sandra Bullock,
Nicole Kidman, Joey King
Sorginkeria. Magia. Sekuela

2 ARETOA
• 19an: 17:00, 19:45, 22:30
• 20an: 17:00, 20:00
• 21an: 19:30



“Tadeo Jones y la lámpara maravillosa”
ABENTURAK. KOMEDIA
2026/Espainia/94’
Zuzendaria: Enrique Gato
Aktoreak: Oscar Barberán,
Michelle Jenner, Petra Martínez
Sekuela. Familia-zinema.
Ehiztariak. Antzinako Arabia

ANTZOKIA
• 19an: 17:00
• 20an: 17:00





**Ana Mari Estenaga
Elkoro**

2026/09/13

“Eskerrik asko,
ama/amama, gure artean
egoteagatik”

Mila esker, bihotzez,
une latz hauetan gurekin egon
zareten guztioi.

- ZURE FAMILIA -



**Ramon
Hernaltes Treviño**

9. URTEURRENA
2017/08/05

Bederatzi urte pasatu
badira ere,
gure bihotzetan
jarraitzen duzu.

- ZURE FAMILIA -





www.etakitto.eus
zorion-agurak



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezke), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **IRENE!**
Domekan, irailak 20, zortzi urte betetzen dozuz-eta. Asko maite zaittugu.



Zorionak **KEPA!**
Gaur 9 urte egin dittuzulako! Besar-kada haundi bat! Amama Edurnek eta aittitta Josuk.



Zorionak **NOA!**
Domekan 7 urte egingo dozuz. Pillua maite zaittugu. Musu asko denon partez.



Zorionak **ELENE!**
Bixar 7 urte beteko dozuz! Jarraitu irribarre horrekin. Patxo haundixak famelixa danan partez.



Zorionak **IZAR!**
Hillaren 16xan 6 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak **PAULA** eta **MARTINA!**
Hilaren 24an 7 urte beteko dozuez eta! Milla patxo etxeko danon partez.

FUNEUSKADI
Grupo Asotza

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR
TANATORIO CREMATÓRIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Elgoibar:
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Maite Alberdi Areitioaurtena

2026/09/12

“Zure bizipozaz
ingurukoak alaitzen
zenituen.

Guk, zure bidea
jarraituko dugu.
Beti gure bihotzean”

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
BENIDORM. Neguko denboraldirako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Igerilekua. Garajea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.
3. LOKALAK
3.2. Errentan
Garaje partzela alokagai Urki-zu Pasealekua, 9 kalean. Deitu 609453946

4. LANA
4.2. Lan bila
Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Baita ostalaritza eta garbiketa lanetarako ere. 632868633.
Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako, orduka edota interna bezala. 612540008.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Edozein momentutan hasteko prest 654154301.
Emakumea eskaintzen da nagusia edo haurrak zaintzeko. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 604120104.
Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko (tituluarekin), 09:00etatik 17:00etara. 633597550.
Emakumea eskaintzen da nagusiak etxebizitzatan zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere, etxe zein elkarte gastronomikoetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 602051567.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 747495356.
Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 688674765.
Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642578943.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan. Esperientziarekin. 612484347.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka,

etxe edota ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Baita etxeak garbitzeko ere. 667060292.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641955434.
Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak zaintzeko eta eskolara eramateko. 618984291.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala edota orduka. Edozein egun eta ordutan. 663365078.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, gabaz edota asteburuetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631907582.
Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Esperientzia eta disponibiltatea. 632288100.
Emakumea eskaintzen da goizetan umeak eskolara eramateko. Urte askotako esperientziarekin. 645720594.
Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 633101852.
18 urteko neska gaztea eskaintzen da, ikasturtean zehar goizetan umea eskolara eramane arte zaintzeko. anearriola1402@gmail.com

4.2. Langile bila
Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegiri baterako. Lan giro bikaina. 943208125,
Gasolindegiri batean oporraldi-tarako lanaldi osoko saltzaile behar da. Interesatuak bidali curriculumak acitain@gmail.com helbidera.
Langilea behar da gasolindegiri batean. 8 orduko kontratua, igandeetan bakarrik lan egi-

teko. Interesatuak bidali curriculumak acitain@gmail.com helbidera.
Pertsona bat behar da irailetik aurrera DBH 3ko eskola partikularrak emateko. 675708939.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
Euskara irakasle bat behar da DBH 3ko ikasle bati, eskola partikularrak emateko. 653735874, 13:00etatik aurrera deitu.
Neska euskaldunak ingelezko klase partikularrak ematen ditu. C1 tituluarekin. 615701749.
Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patricia.
Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira.

6. DENETARIK
6.4. Bestelakoak
Txakurkume mestizoak adopzio arduratsuan ematen dira. Klaus: 603434858.
Txakurkumeentzako artikulak gustura hartuko genituzke. Klaus: 603434858.

Urriak 3

ZAPATUA

**11:00etatik
15:30ak arte**

***Eibarko
Untzaga plazan***

eta kitto!
JAIA 2026

Antolatzailea

eta kitto!



Laguntzaileak





*Irribarreetan
adituak,*

**etor zaitez
gu ezagutzera**



HELIBIDE BERRIA!

Blas Etxebarria 3
20600 Eibar



943 208 552



@clinicairazabal



clinicairazabal.com